

Bizkaiko Foru Aldundiaren \_\_\_\_/2019 FORU DEKRETUA, \_\_\_\_aren \_\_ (e)koa, zeinaren bidez onesten baitira 2019ko ekitaldian Bizkaiko kultura zabaltze aldera egiten diren ikus-entzunezko dokumentalen ekoizteko dirulaguntza foralen oinarriak eta deialdia.

Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, 7.a.13) artikuluan, eskumen eskusiboa ematen die lurralde historikoei, besteak beste lurralde historikoaren interesekoak diren kultura-organismoak sortu eta mantentzeko. Eskumen hori betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen eremuaren barruan, jardute-lerro batzuk dauzka abian kultura-diziplina guztiak bultzatu, sustatu eta hedatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea, gure kulturaren ezagutza eta garapenetik abiatuta eta beste kultura guztiei atearik zabalduz.

Jardute-esparrua horrelaxe dago definituta, eta kontuan hartu behar da zein zeregin betetzen duen ikus-entzunezkoak XXI. mendean zabalkunde sozialeko tresna gisa; horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, beharrezkoa da laguntza ematea dokumentalak egiteko, beraien helburua Bizkaiko kultura biztanleriaren sektore gehiagotara zabaltzea delarik, bai memoriarekin lotutako dokumentalak eginaz, bai sorkuntzako adierazpen berriak erabiliz.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia \_\_\_\_/2019 de \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la producción de documentales audiovisuales de difusión de la cultura vizcaína durante el ejercicio 2019.

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos, en su artículo 7.a.13), competencia exclusiva entre otras, en materia de creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del territorio histórico. En aras de hacer efectiva la misma, la Diputación Foral de Bizkaia tiene en marcha diversas líneas de actuación, tendentes, en su propio ámbito competencial, al fomento, la promoción, y difusión de la cultura en sus distintas disciplinas.

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 22/2018, de 6 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskara y Cultura, atribuye a este departamento la competencia para promover y difundir la cultura en Bizkaia, desde el conocimiento y desarrollo de la cultura propia y la apertura a todas las culturas.

En este marco de actuación así definido y teniendo en cuenta el papel que en la sociedad del siglo XXI desempeña lo audiovisual como instrumento de divulgación social, la Diputación Foral de Bizkaia, considera necesario apoyar la realización de documentales que difundan la cultura vizcaína en sectores más amplios de la población, bien en aspectos vinculados con nuestra memoria, como con las nuevas expresiones creativas.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.



Foru-dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru-dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen ematea arautuko duten oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Gobernu Kontseiluari dagokiola onestea egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko.....aren...(e)ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Foru Aldundiaren dirulaguntza batzuen oinarriak eta deialdi publikoa onestea.*

Onetsi egiten dira, 2019ko ekitaldian Bizkaiko kultura zabaltze aldera egiten diren ikus-entzunezko dokumentalen ekoizpena egiteko Euskara eta Kultura Foru Sailak emango dituen dirulaguntza foralen oinarriak eta deialdia.

Atendiendo a lo dispuesto en dicho decreto foral, en su elaboración se han emitido los siguientes informes:

1. Informe jurídico del departamento promotor.
2. Informe de evaluación previa del impacto en función del género.
3. Informe de control económico.
4. Informe de legalidad.

El artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un solo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera y Cultura, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia, en su reunión del día \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2019,

DISPONGO

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales que se conceden por el Departamento Foral de Euskera y Cultura, destinadas a a la producción de documentales audiovisuales de difusión de la cultura vizcaína, durante el ejercicio 2019.



## I. TITULUA

### Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Foru-dekretu honen arabera diruz lagundu daitezkeen jarduera hauxe da: ikus-entzunezko dokumentalak ekoiztea, baldin eta dokumentalok Bizkaiko kultura balioesten badute eta jendaurrean 2020ko apirilaren 1a baino lehen zabaltzen badira.

Dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2019ko ekitaldian zehar ekoitzi beharko dira.

2. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Hezkuntza-sistemako ikaskuntza-prozesuei lotutako dokumentalak.

b) Hizkuntzak ikasteko egiten diren dokumentalak.

c) Turismoa sustatzeko egiten diren dokumentalak.

d) Fikzio-dokumentalak.

e) 30 minutukoak baino laburragoak eta 90 minutukoak baino luzeagoak diren dokumentalak.

f) 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen estreinatutako dokumentalak.

g) Kirol-gaiei buruzko dokumentalak.

h) Sexuarengatik diskriminazioa dakarten dokumentalak.

3. Diruz lagunduko dira 2019an egindako ekoizpen-gastuak bakar-bakarrik.

Betiere, diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko

## TÍTULO I

### Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. La actividad subvencionable con arreglo al presente decreto foral es la producción de documentales audiovisuales que pongan en valor la cultura vizcaína, y se difundan al público antes del 1 de abril de 2020.

Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollar su producción durante el ejercicio 2019.

2. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Los documentales vinculados a procesos de aprendizaje en el sistema educativo.

b) Los documentales dirigidos al aprendizaje de idiomas.

c) Los documentales dirigidos a la promoción turística.

d) Los documentales de ficción.

e) Los documentales que tengan una duración inferior a 30 minutos y superior a 90 minutos.

f) Los documentales estrenados con anterioridad al 1 de enero de 2019.

g) Los documentales de temática deportiva.

h) Los documentales que discriminen por razón de sexo.

3. Serán objeto de subvención únicamente los gastos de producción realizados en 2019.

En todo caso, tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios, y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda



balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat bakarrik onartuko dira transakzio ekonomiko bat eragin dutenak bakarrik; transakzio hori egiaztatuko da zelan eta dirulaguntza eskatu duen erakundearen izenean egindako fakturen bidez.

Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Zabalkunde-gastuak.

b) Dirulaguntzaren eskatzailea ez den beste erakunde batek zuzenean ordaindutako gastuak.

c) Gauzatan ordaindutako babesa.

d) Eskatzailearen egitura kudeatzeko gastuak (egitura: langileak, lokalak mantentzea, egitura funtzionala mantentzea), baldin eta gastu horiek gainditzen badute proiektuaren gastuen zenbateko osoaren % 10.

e) Ekipo-ondasunak eskuratzea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru-dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

f) Banku-kontuetako interes zordunak.

g) Interesak, errekareruak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.

h) Prozedura judizialen gastuak.

i) BEZa, baldin eta berreskura edo konpentsa badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dute gastuen zenbatekoek, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den aurrekontu exekutatuan.

j) Oro har, maiatzaren 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluekin bat etorrira, beren-beregi kanpo utzitakoak.

4. Foru-dekretu honen helburua erakunde eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea da;

ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Solo se admitirán como tales aquellos que supongan una transacción económica constatada con facturas a nombre de la solicitante de la subvención.

No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

a) Los gastos de difusión.

b) Los gastos abonados directamente por otra entidad que no sea la solicitante de la subvención.

c) El patrocinio en especie.

d) Los gastos de gestión de la estructura de la solicitante (personal, mantenimiento de los locales, mantenimiento de su estructura funcional), que superen el 10 % del importe total de gastos del proyecto.

e) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

f) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

g) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

h) Gastos de procedimientos judiciales.

i) El IVA, cuando sea susceptible de recuperación o compensación. En este caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención, deberán figurar los importes de gasto sin IVA.

j) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

4. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las entidades



horregatik ez dira inoiz finantzatuko jardueren ondoriozko gastu guztiak.

2. oinarria. *Pertsona eta erakunde onuradunak.*

1. Foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzak honako hauek jaso ditzakete: sozietate anonimoek, erantzukizun mugatuko sozietateek, sozietate kooperatiboek eta sozietate zibilek (Kode Zibilaren 1669. artikulukoak izan ezik) eta enpresa-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek, baldin eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez badaude eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Xede soziala ikus-entzunezko ekoizpena izatea.

c) Alta emanda egotea EJZearen dagokion epigrafean: 196110.

d) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea (sozietate zibil eta pertsona fisikoen kasuan izan ezik).

2. Foru-dekretu honen bidez araututako deialditik kanpo geratuko dira pertsona hauek:

a) Ondasun-erkidegoak eta Kode Zibilaren 1669. artikuluan aipatutako sozietate zibilak.

b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

## II. TITULUA

### Araubide juridikoa

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

1. Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko

solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de las actividades.

Base 2. *Personas y entidades beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral tanto las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades cooperativas y las sociedades civiles, como las personas físicas que ejerzan actividades empresariales, que no estando incursas en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos:

a) Tener el domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Tener como objeto social la producción audiovisual.

c) Estar de alta en el correspondientes epígrafe del I.A.E: 196110.

d) Estar inscritas en el registro correspondiente (excepto sociedades civiles y personas físicas)

2. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente decreto foral:

a) Las comunidades de bienes, y sociedades civiles referidas en el artículo 1669 del Código Civil.

b) Quienes incumplan las obligaciones establecidas en el título III de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## TÍTULO II

### Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable.*

1. Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula



orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

2. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. oinarria. *Arau-haustek eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. titulu ere.

### III. TITULUA

#### Prozedura

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoarekin bat, foru-dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzen eskatzaileak behartuta daude Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera.

Pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat baino ezin izango du aurkeztu.

2. Eskabideak aurkezteko, hilabeteko (1) epea dago, foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean

el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como supletoriamente la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

2. La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el título IV del reglamento de desarrollo de la misma.

### TÍTULO III

#### Procedimiento

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 y 3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las personas solicitantes de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral deberán relacionarse electrónicamente con la Diputación Foral de Bizkaia.

Cada persona o entidad solicitante solo podrá presentar una solicitud con un único proyecto.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será de un (1) mes a contar desde el día siguiente al de la



argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

1. Dirulaguntzaren eskabide espezifikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri (<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>), eta bertan bete eta aurkeztu beharko dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Dokumentazio orokor eta espezifiko hau erantsi beharko da:

a) Pertsona fisikoren batek entitate baten izenean aurkeztzen baldin badu eskaera bere NAN elektronikoaren bidez, hauek ere ekarri beharko ditu: entitate horren IFZaren kopia, eta ahalordetze-eskrituraren fotokopia edo entitate horren izenean aritzeko halako ordezkari-tza egiaztatzen duen bestelako dokumenturik

b) Erakundearen estatutuen kopia edo erakundea eratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa; batean zein bestean erakundearen helbideak eta xede sozialak agertu behar dute, baldin eta erakunde horiek sortu berriak badira, azken hiru urteetan aldaketak izan badituzte, edo Kultur Ekintzako Zerbitzuan aurretik dirulaguntzarako eskabiderik aurkeztu ez badute.

c) Dagokien erregistroan inskribatuta daudela ziurtatzen duen agiria (sozietate zibilen eta pertsona fisikoen kasuan izan ezik).

d) Banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala beteta, alta edo aldaketaren bat egon bada, bakarrik.

e) Proiektuaren azalpena, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituena:

1) Azalpen-memoria.

2) Dokumentalaren gidoia.

3) Dokumentala ekoizteko plana.

4) Dokumentalaren fitxa tekniko eta artistikoa.

fecha de publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Base 6. *Documentación a adjuntar con las solicitudes.*

1. Los modelos específicos de solicitud estarán disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>), de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015.

2. Deberá adjuntarse la siguiente documentación, tanto de índole general como específica:

a) En caso de que una persona física formule la solicitud en representación de una entidad mediante su DNI electrónico, deberá aportar copia del NIF de dicha entidad, y fotocopia de la escritura de apoderamiento u otros documentos que acrediten la representación con la que actúa.

b) Copia de los estatutos o documentación acreditativa de su constitución, en la que figurará su domicilio y objeto social, en caso de entidades recién constituidas, que hayan sufrido modificaciones en los últimos tres años, o que no hayan presentado solicitud de subvención con anterioridad en el Servicio de Acción Cultural.

c) Certificado de estar inscritas en el registro correspondiente (excepto sociedades civiles y personas físicas).

d) Ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada únicamente en los casos de alta o modificación.

e) Descripción del proyecto que, al menos, incluya:

1.º Memoria explicativa.

2.º Guion del documental.

3.º Plan de producción del documental.

4.º Ficha técnica y artística del documental.



f) Erakundeen kasuan, erakundearen zuzendaritza-eta gobernu-organoko kideen kopurua jasotzen duen txostena; sexuaren arabera bereizi behar dira kideak, eta bereziki adierazi behar da emakumezkoa ala gizonezkoa den erakundeko burua. Zuzendaritza-eta gobernu-organoko idazkariak edo idazkari-lanetan diharduenak sinatuko du txostena

3. Bizkaiko Foru Aldundiak eskabidea sinatu duen pertsonaren nortasun-datuak egiaztatuko ditu, bai eta EJZren zer epigrafetan dagoen alta emanda; betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritz.

4. Era berean, eskabide hau sinatuta baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

5. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, adierazi behar da zein diren erakundeak urtean aurreikusten dituen diru-sarrera guztiak.

7. oinarria. *Eskabideak zuzentzea edo hobetzea.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietaoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendu elektronikoa egingo zaio erakunde eskatzaileari, hamar (10) egun baliouduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio

f) En caso de entidades, informe comprensivo del número de personas miembros del órgano de dirección y gobierno de la entidad disgregadas por sexo, especificándose individualmente el género de quien ostente la presidencia, que deberá estar firmado por la secretaría del órgano de dirección y gobierno o de quien haga sus veces.

3. La Diputación Foral de Bizkaia consultará y verificará los datos de identidad de la persona firmante de la solicitud, y los epígrafes en los que se encuentra dada de alta en IAE, siempre que no conste la expresa oposición de las personas solicitantes.

Así mismo, la Diputación Foral de Bizkaia verificará los datos de titularidad de su cuenta bancaria, siempre que no conste la expresa oposición de las personas solicitantes.

Cualquier acceso a dichos datos se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

4. Igualmente, la firma de la solicitud conllevará la autorización al Departamento Foral de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia para recabar los certificados de Hacienda y de la Seguridad Social a los efectos previstos en el artículo 21.3 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, General de Subvenciones.

5. En cumplimiento del artículo 2 la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, deberán indicarse los ingresos totales anuales previstos por la entidad.

Base 7. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá electrónicamente a la persona o entidad solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo





ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

#### 8. oinarria. *Dirulaguntzak emateko araubidea.*

Dirulaguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, eta, foru-dekretu honen 9. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezarriko da.

#### 9. oinarria. *Dirulaguntzak ebaluatzeko irizpideak.*

1. Dirulaguntzetarako eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egiteko eta haien zenbatekoa zehazteko, epaimahai kalifikatzaileak ondorengo irizpideak eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

a) Proiektuaren interes kulturala. Gehienez, 60 puntu emango dira, honela banatuta:

1) Zabaldu nahi den kultura-adierazpena: gehienez, 30 puntu.

2) Gidoiaren kalitatea: gehienez, 15 puntu.

3) Proiektua egitean ageri den sormena: gehienez, 15 puntu.

b) Andrazkoek proiektuan duten partaidetza. Gehienez, 10 puntu emango dira, honela banatuta:

Puntu bat andrazko bakoitzak proiektuaren jarduera hauetan parte hartzeagatik: gidoigintza, zuzendaritza, argazkigintza, ekoizpena, musika.

hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Servicio de Acción Cultural podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

#### Base 8. *Régimen de concesión.*

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, a través de la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en la base 9 de este decreto foral.

#### Base 9. *Criterios de valoración de las subvenciones.*

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, se establecen como sigue:

a) Interés cultural del proyecto. Se concederá hasta un máximo de 60 puntos, desglosados del siguiente modo:

1.º Expresión cultural a difundir: hasta un máximo de 30 puntos.

2.º Calidad del guion: hasta un máximo de 15 puntos.

3.º Creatividad en su realización: hasta un máximo de 15 puntos.

b) Participación de mujeres en el proyecto. Se concederán hasta un máximo de 10 puntos desglosados del siguiente modo:

Un punto por cada mujer participante en las siguientes actividades del proyecto: guion, dirección, fotografía, producción, música.



c) Proiektuaren autofinantzaketa maila; horrelakotzat hartuko da hurrengo eragiketaren emaitza: proiektuaren diru-sarrera propioak gehi eskatzailearen ekarpen propioa zati aurrekontuko diru-sarreraren zenbateko osoa. Gehienez 15 puntu emango dira.

Puntuazioa honela kalkulatu da: autofinantzaketa-maila handiena duen proiektuari 15 puntu emango zaizkio, eta, ondoren, hiruko erregela erabiliko da puntuak banatzeko.

Lortutako puntuazioan zenbaki hamartarrak egonez gero, zenbaki oso hurbilenera biribilduko da puntuazioa, eta, distantziakidetasuna suertatzen bada, handienera.

d) Hizkuntza. Ekoizpena jatorriz euskarazkoa bada, 15 puntu emango dira.

2. Epaimahai kalifikatzaileak lehen adierazi diren irizpideekin bat ebaluatuko ditu proiektuak, eta merezi duten erakundeei puntuazio altuenak emango zaizkie, baldin eta aurkeztutako dokumentazioaren bidez hala egiaztatzen badute, eta, puntuaziook oinarri hartuta, zuzeneko proportzioan emango zaie puntuazioa aurkeztutako gainerako proiektuei.

Epaimahai kalifikatzaileak gutxienezko puntuazioa finkatuko du, eta, hortik beherako puntuazioa lortuz gero, ezin izango da dirulaguntza foralik jaso.

3. Aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren % 50erainokoa izango da dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, eta zenbateko horrek ezin izango du ezelan ere 30.000 euroko kopurua gainditu, ez eta eskatzaileak eskatutako zenbatekoa ere.

10. oinarria. *Aholkularitza.*

Foru-dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuak. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webean:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

c) Nivel de autofinanciación del proyecto, entendiéndose por tal el ratio resultante de dividir los ingresos propios del proyecto más la aportación propia de la solicitante entre el importe total de los ingresos del presupuesto: Se concederá hasta un máximo de 15 puntos.

Para calcular la puntuación se procederá de la siguiente manera: al proyecto con mayor nivel de autofinanciación se le otorgará 15 puntos; por medio de una regla de tres se irán repartiendo el resto de puntos.

En el caso de que la puntuación obtenida tenga decimales, se redondeará al número entero más cercano, y en caso de equidistancia al superior.

d) Idioma. Si la producción es original en euskera, se concederán 15 puntos.

2. Las valoraciones de los proyectos se realizarán por el tribunal calificador en razón de los criterios anteriormente expuestos, concediendo las mayores puntuaciones a las solicitantes que, según la documentación aportada, justifiquen hacerse merecedoras de las mismas y, a partir de estas, de forma directamente proporcional, al resto de los proyectos presentados.

El tribunal calificador fijará una puntuación mínima, por debajo de la cual no habrá derecho a obtener subvención foral.

3. El importe máximo de las subvenciones será de hasta el 50 % del presupuesto depurado del proyecto presentado, y no superará en ningún caso los 30.000 euros ni el importe solicitado por la solicitante.

Base 10. *Asesoramiento.*

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera y Cultura prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral. A estos efectos se encuentra disponible la siguiente dirección en la página web:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>



#### 11. oinarria. *Epaimahai kalifikatzailea.*

1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Euskara eta Kulturako foru-diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak puntuaziorik handienak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontuko partidari ezarritako zenbatekoa muga izanik. Epaimahaiak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara eta Kulturako foru-diputatuari, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

#### 12. oinarria. *Ebazpena.*

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, ez da aurreikusten deialdi honetan interesdunei lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango zaienik, behin entzunaldiaren izapidea eskaini eta gero, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

